

Danborrada 2020

Eguberri giroa danbor hotsek ordezkatu dute honez gero. Bai Zurriolako haur eta helduen konpainiak baita *Marruma*, *Gaviota* eta *Cangrejo* elkarteak egiten ari diren entseguak neguko iluntzeak girotzen ari dira, Soroan eta Hurran. Bitartean, dena prest dugu **datarren ostiralean**, hilak 17, sansebastianak ospatzen hasteko. Gutun [honetan](#) HH2-3koentzako argibideak dituzue. Beste ohar [honetan](#), berriz, HH4tik Batxilergo bitartekoentzako informazioa duzue irakurgai.



Non itsasoratzen da Niloa? Zurriolan noski! (LH3)

Nilo ibaiaren gorabeherak ikasteko bi aukera daude: Egiptora joan ala maketak diseinatu eta sortuz Nilo ibaia gelan irudikatzea elkarlanean. LH3koek argi izan eta 2. aukera hautatu dute. Izan ere, ondo pasaz, elkarrekin pentsatzen, planifikatzen, diseinatzen eta egiten askoz hobeto ikasten baita!



OLENTZEROn kale-jira. Urteko azken ekintza izan genuen abenduaren 24ko Eguberrietako kale-jira. [Bertan](#) dituzue argazki batzuk.

OHARRAK / AGENDA:

- **Jangela:** Ilbeltzeko [menua](#).
- **HH5:** Goiz pasa Parte Zaharrera. Urtarrilak 14. (Haurrak 9:00etarako ekarri, faborez).
- **LH3-6:** 1. ebaluazioko buletinak dagoeneko [Alexian](#) ikusgai.
- **DBH1-2:** 1. ebaluazioko emaitzak Alexian: Ilbeltzak 22.
- **DBH3:** Helduen danborradarako 6 banderadun eta 2 gastadore behar dira. Izen ematea: helduendanborrada@zurriolaikastola.eus.
- **DBH3-4:** 1. ebaluazioko errekupezioko emaitzen buletinak dagoeneko [Alexian](#) ikusgai.
- **BATXI1-2:** Frantseseko aukeragaia. Antzerkia. Urtarrilak 13.
- **Artezkaritza Kontseilua:** Bilera. Ilbeltzak 13.
- **Groseko Haur Txokoa & Gaztelekua:** Urtarrila. [Ekintza](#) egutegia.



Korri,
pampa,
ttak.

KILOMETROAK 2020
URRIAK 4

URTE BERRIA, AGENDA BERRIA: 2020 urtean Ikastolen Jai nagusiak noiz eta non egingo diren gogorarazteko esteka duzue hauxe.

